

Nafarkaria


• ostirala • 2001eko abuztuaren 10a

Egunkaria


Gehigarri honetan

Beire • Igandean 11. Eskulangintza Jaia ospatuko dute herrian hogeita zazpi artistekin batera
Aritz Ibañez • «Gure folkloreak aise ematen du nazioarteko jaialdietarako»

Urbasa eta Andiaiko baliabideak



Antzinatek nafar guziek eskubidea dute Urbasara eta Andia abereak eramateko, bertan txabolak egiteko eta egurra beharren arabera hartzeko. Egun, nafar gehienek muzin egiten diote eskubide horri. Baina horrek ez du erran nahi naturguneko baliabideak erabiltzen ez dituztenik. Izan ere, Urbasa-Andiako ondarea askotarikoa da. Parkearen erabilera tradizionalak aitzina jarraitzen du; baina, geroz eta indartsuagoa da parkearen ustiaketa turistikoa.




• ARGAZKIAK: MIKEL SAIZ

Beire ●

Zurezko eskulanean aterpean

Igandean II. Eskulangitza Jaia ospatuko dute herrian, hogeita zazpi artistarekin batera

Beireko aterpeak eskulangintza zentroa sortu zuen iaz: hiru lantegi, erakusketa aretoa eta denda. Egunotan zura lantzen duten lau artisten lanak ikusgai daude. Eta igandean, eskulangitza jaia izanen da.



Goian ezkerretara Jose Luis Intxaurrendoren artelana, behean Mare Arrizurieta, ezkerrean Carmelo Bonetarena, eta azkenik, goian Fermin Andarena. ● OSKAR MONTERO

IAZKO ABUZTUAN, NAFARKARIAN erreportaia egin genuelarik, Beireko aterpean Eskulangintza Zentroa atontzen ari ziren. Orain, aterpeko zuzendari Maria Jesus Reyk baieztatu duenez, zentroa bukatu dago. «Hiru lantegiak, erakusketa aretoa eta denda mar txan dira». «Azken urtean lantegiak, batez ere, haurrek erabili dituzte. Udaberrian hainbat ikastaro egin ziren hemen: zeramika, kartoia, birziklatzea... Eskulangileek orokorrean ez dute askorik erabili zentroa, baina egia da aurtengo zentratu garelako obrak».

Beireko aterpeak iaz zeramikaren inguruko jardunalditxoak antolatu zituen. Aurtengoak zurez eginiko artelaren ingurukoa dira. J. Luis Intxaurrendoren (Tafalla), Mare Arrizurieta (Leizta), Carmelo Boneta (Lizarran) eta Fermin Andarena (Bakaiku) artisten lanekin erakusketa paratu dute Beiren. Igandean, II. Eskulangitza Jaian, artista horiek Beiren izanen dira. Aterpeko patioan izanen dira goizean, euren lana nola egiten duten erakusten.

Igandeko jaia
Iazko arrakasta ikusita, Beireko Udalak, Erdialdeko Partzuergoaren eta aterpearen laguntzaz, eskulangintza jaia antolatu du

berriz. Denetara, 27 eskulangile egonen dira igandean Beiren. Bisitariei harrera egiteko, 09:30ean herritar batek eginiko opilak eta kafea banatuko dituz-

te. Goizean, 10:00etatik 14:00etara, San Millan elizako atrioan zeramika, kartoi eta jostailuen birziklatze tailerrak paratuko dituzte, jendeak parte har dezan. Ordu berean, Udaltxe plazan, Rueda plazan, Erdiko plazan eta Plaza Nagusian eskulangileen erakustaldia izanen da. Gainera, Beireko hiru lantegietan aritzeko aukera izanen da. Bitartean, txaranga ba-

tek herriko karririk alaituko dituzte. Horretaz gain, 11:00etatik 13:00etara bisita gidatua egingen dute San Millan eliza eta herriko karriketaren barrena. 12:30ean, San Frantzisko plazan haurrentzako ikuskizun bat izanen da, eta 13:00etan nekazaritza produktuen dastaketa merkea izanen da Casino tabernan.

→ Asier Azpilikueta

muga enea

MIKEL REPARAZ



Lagun batek ekarri zizkidan sarrerak. Bi. Lanetik aterazera nihoan, ez nuen plan alternatiborik, eta jokoz kanpo harrapatu ninduen gonbitak. «Nahi al duzu nirekin zirkura etorri?». Sanferminetan eta sanjoanetan bezala, Gasteizko festetan ere motel ibiltzen naiz erreflexuz. Ez galdetu nola, baina plastikozko aukl batean jarrita amaitu nuen, karpa baten azpian, haurrez inguratuta eta girootan ohikoa den lurrinean murgilduta: elefante puzker usainetan blai, alegia. Zaldi dantzariak atera ziren lehenik. Tira. Pailazoen, trapezistek eta motorista eroek ez ninduten sobera hunkitu. Ez eta elefantearen kontrako sokatira saioak. Baina orduan hoteletako boto-

Ligre bat

nes horien antzera beztitu mutilek amen batean paratu zuten burdinazko kaiola. Piztientzako hesia. Begiak ireki zitzaizkidan. Leopardoaren haragi eroriak eta tigre prostati-koak, barbiturikoz lokartu lehoiak eta, bat-batean, bera. Izadiaren miraria, naturaren bitxikeria, freak biologikoa, Kreazioaren txantxa: Ligrea. Erdia lehoi, erdia tigre. Ligrea.

Orduz gero ligrezale amorratua naiz. Biharamunean Interneten sartu nintzen buru-belarri, ligrearen bila. Argazkiak nahi nituen, animalia berri. Benetakoa ote da? Gran Circo Mundial SL enpresaren marketin birtuala? Holograma? Ingeniaritza genetikoaren produktu? Ala zir-

kuan kaiolen faltan piztia guziak batera gordetzearen ondorio soil eta ekidinezina? Auskalo. Kontua da ligrezale amorratu naizela zirkuan izan nintzen egunetik. Areago, aniztasun zoologiko eta bioaniztasunaren defentsan, zirkua habitat bezala duten izaki bitxi guzien eskubideak aldarrikatzen ditut. Garai bateko erraldoi, ipotx, emakume bizardun eta bi buruko arkumeen ondorengoa, ligrea babes dezagun. Eta anima ditzagun gure baserriarrak, kanpainia horrekin bat egin dezaten; sor ditzatela, kreatibitate askatuz eta imajinazioari bidea emanik, euskal oiloa eta ardiaren arteko oilardiak, zezerriak, astoiarrak eta zerrifanteak.


Iribas • Ertzilla errekatik Larraun ibairaino

Bi iturburuak lotzen dituen bost kilometroko ibilbidea inauguratu zuten joan den uztailean

Iribasko herria eta inguruko bidexkak txukunago daude azken hilabeteetan eginiko lanaren ostean. Plazaola Partzuergo Turistikoaren ekimenari esker, herritik bertatik Larraun iturbururaino doan bide zoragarria egiteko aukera dago.

IRIBASKO ITURBURUETAKO INGURUAN uren partzuergoa eta zentral hidroelektrikoa sortu zirenetik, parajearen hondamena nabaria zen. Horregatik, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Cerderna-Garalur Elkarteak, Nafarroako Gobernuak, Lekunberriko eta Larraungo udalek eta Iribasko Kontzejuak egokitze lanei ekin zieten, 4.600.000 pezetako aurrekontuaz.

Lan horiek 2000ko udazkenean hasi eta aurtengo udaberrian bukatu ziren. Iribasko alkate Juana Mari Zubietak azaldu duenez, «lehendabiziko fasean, besteak beste, garbiketa lanak egin dira, galduta zeuden bide zaharrak berritu dira, bidea panel handiz seinatu da, eta Iribasko herritarrek, auzolanean, Aitzarratetako errota txukundu



Ertzilla erreka Aitzarratetako haitzetatik ateratzen da, eta, lurrean sartu eta gero, berriz azaleratzen denean, Larraun ibaia da.

● PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA

dute eta egurrezko hesi bat paratu dute, harri gehiago erortzen ez uzteko».

Eginiko lanari esker, bost kilometroko ibilbidean Aralar mendian dauden fenomeno interesagarrietako batzuk ikusten ahal dira. Iribasko kontzejuan

bizi diren 49 lagunek jaiegunean herrira jende dexente joaten dela sumatu dute. «Orain jende asko ibilbide hori propio egitera etortzen da», dio alkateak.

Etorkizunean, konponketen bigarren fasea egitea aurreikusten dute. «Dirua lortuko bage-

nu, inguruan lan asko legoke. Erreka bera garbitu, aparkalekua moldatu...; izan ere, herrira etortzen diren autoak gaizki aparkatuta egoten dira, eta aziendak, esaterako, neketsu jartzen dira», gaineratu du Zubietak.

Ibilbidea

Ertzilla erreka Aitzarratetako parajeko haitzetatik irteten da, eta gero ura hobian sartzen da. Ondoren, bailara lehorra dugu, osin batean amaitzen dena eta, bukatzeko, Basakaitz izeneko parajea, Larraun ibaia azaltzen zaigu.

Hori guztia ikusi ahal izateko, bost kilometroko ibilbidea egitea besterik ez dago. Iribasko Ainagaine izeneko aparkalekuan jarritako panel batzuek ibilbidea azaltzen dute.

Herria zeharkatutakoan, Lizardiko parajea dagoen panelean Aitzarratetako errotaraino daraman bidea ikus daiteke. «Errota hau oso txukuna zen lehen, baina urteetan eginiko obren ondoren, hondatu egin da. Bigarren fasean konpontzea espero dugu», dio alkateak.

Itzultzeko, bide bera ibili behar da, Arotzeneko bordaren azpian dagoen larreraino. Hortik, Aitzondoko larreak zeharkatzen dituen bidea hartzen da, Ertzillaren ertzetik. Berehala, Legezaldeko osinaren ahoa inguratzen duen horma ikusten da. Gero, lizardia zeharkatuta, beherantz egin behar da, Basakaitzeraino, Larraun ibaiaren sorlekua. Ibilbide zoragarri hau amaitzeko, gorantz doan bidexkatik aparkalekura itzuliko gara.

→ Estibalitz Ortega

Nafarroa • Erronkari, Otsagi eta Pitillasko Interpretazio Zentroek liburutxoak kaleratu dituzte

INGURUMEN DEPARTAMENTUAK INFORMATU duenez, Erronkariko eta Otsagiko Interpretazio Zentroek eta Pitillasko Hegaztien Behatokiak hainbat liburutxo kaleratu dituzte bisitariak euren kabuz egin dezaten bisita. Erronkari eta Otsagiko zentroen liburutxoek bisitaria gidatzen dute zentro bakoitzeko protagonistetan arreta jarritz: hartza eta ugatza, hurrenez hurren. Honela bada, Erronkariko liburutxoan Camille hartzak berak gidatzen du bisita. Erronkarikoak, be-

rriz, antzerkia du ardatz, eta ugatza rol nagusia egiten duena. Bi liburutxook, esperimentazio fasean daude eta, «horregatik, ez dira euskaraz argitaratu».

Pitillasko Hegaztien Behatokiak, bere aldetik, bi liburutxo argitaratu ditu. Horietako bakoitzak ibilbide bat biltzen du, mapa eta azalpenekin, nork bere kabuz egin dezan.

Bestalde, Ingurumen Departamentuak gogorarazi du zentro hauen ordutegia zabaldu egin dela udan. Erronkari eta Za-

raitzuko zentroak asteartetik igandera daude zabalik, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etatik 20:30etara. Irunberri Arroilakoa, as-

teartetik igandera, 11:00etatik 20:30etara. Bertizkoa, asteartetik igandera, 10:00etatik 13:30etara, eta 16:00etatik 19:30etara.

Vianako El Bordon hegazti behatokia asteazkenetik igandera dago irekita, 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara. Eta, azkenik, Pitillasko behatokia egunero dago zabalik 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

→ Daniel Urrutia

Larraburu-Enetik

Batzuetan, Larraburu-Enea utzi eta abioia hartzea tokatzen zait. Dela Pakea eta Demokrasiaren Aldeko Sari bat ematen didala Nicole Lafontaine (Estrasburgon jaso behar dudana), dela nik neuk Nicole Lafointaineri Demokrasiaren Aldeko Saria emateko epaile gisa aritu behar dudala Madrilen, edo Santanderren... (kasu maitagarrienak bakarrik aipatzearen). Kontua da abioia hartzea tokatzen zaidala batzuetan. Halakoetan, Bexikulasi txoferraren jantzia jartzeko eta Mercedesate ondora hurbiltzeko esaten diot («Jauna: beltza edo zuria?» - eguraldiaren arabera, Bexikulasi! Eguzkiarekin txuria, lanbroen artean nahiago dut beltza). Egia da autoen tokira oinez joatea banuela, Dorretik 500 metro eskasera baitago, baina horretarako zalditegien aurretik igaro beharko nuke, eta Beatriceren istripuaren ondortik nahiago dut zalditegiak ez ikusi (zaldien zainketan daudenek ongi dakite hori, eta nire laguntza behar dutenean, zaldi berrien izenak aukeratzeko, esate baterako, animaliak Dorrera hurbiltzen dizkide modu adeitsuan. Orduan «Xaxa» esaten diet, edo «Venezuela», edo «lgandekoazkenordua», eta azukre koskor batekin bataiatuak gelditzen dira betiko, nola sari entzutetsuen aipamenetarako hala ahanztura sakonenetarako).

Zertaz ari nintzen? A bai! Beatrice! Ez pentsa emakume bat zenik, behorra zen. Ascoteko sariak lortzeko adinakoa. Baina orkatilla bihurtu eta hil behar izan genuen. Geroztik hutsune hori filosofia eta literaturarekin saiatu naiz betetzen, baina sekulakoa da hutsunea, Larraburu-Enea bera baino askoz ere handiagoa (pentsa: 50 hektarea. 55!, alboko nekazariak mugarrak mugituz kendu didatena kontuan hartuz gero!). Horixe, ba: hutsune erraldoia, literatura eta Nicolerekin betetzen saiatzen naizena. Helburu honetarako aireportuak lagungarri dira. Leku arraroak maitaleentzat, ez da hala? Baina, hala eta guztiz ere, ederrak: Nicolengana hurbiltzen nauten abioiez gainezka. Hau harremana arraroa! Gu bezalako bi hiritar xume (baina ba al dago Hiritar Xume baino gauza handiagorik?) abioien ordutegiei mugatutako harreman batean sarturik. Larraburu-Enetik harantzago, ikusi nahi ez ditudan zalditegietatik haratago, nire azukre koskorra: sari bakoitzean amodioaren izenean bataiatzen nauten hori! ●



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu



Urbasa bisitatzeko aitzakia

Urbasa eta Andia naturgunearen edertasunak milaka bisitari erakartzen ditu urtero. ● MIKEL SAIZ

Interpretazio Gunea zabaldu, eta bi ibilbide paisajistiko osatu dituzte, Urbasa-Andia Natur Parkean

Otsailaren 27ko 3/1997 Foru Legeak jasotzen duenez, «Urbasa eta Andia mendiek naturgune bat osatzen dute, geologia, biologia, ekologia, estetika, paisaia, arkeologia eta soziokultura aldetik balio multzo zabal batez hornitua». Gainera, Interpretazio Gune berria zabaldu dute, eta Iturrien eta Mendizaleen ibilbidea aurkeztu berri dituzte.

INGURUMEN DEPARTAMENTUKO AGINTARIEK, Javier Markotegi buru zutela, Urbasara txangoa egin zuten iragan uztailearen 26an, naturgune Interpretazio Gune berria inauguratzeko. Urbasako Jauregitik hurbil, Severinoren Txabola izenekoan paratu dute. Borda hori Severino Murillorena izan zen, urteetan Urbasako basozaina izan zenarena. Inguruko hiru artzainek Severinoren txabola atondu, eta ondoan ikaztegia egin dute, antzinako erara.

Txabola, antzinako erara

Bakedanoko Narciso Andueza, Zudairiko Damian Balerdi eta Artzazako Patxi Erdozia artzainek atondu dute Severinorena. Euren gazte denboran ezagutu zituzten txabolen gisara prestatu dute. Baina, Damian Balerdik aurkezpenaren erran zenez, «gehiegixxo» atondu dute: «Benetako txabolekin konparatuz gero, sobera hobetua gelditu da. Hemen zolua harrizkoa da, eta teilatua, teilaz egina. Baina, orduan, guk lurra zapaltzen genuen, eta teilatua iratzeekin egiten genuen. Gainera, paretetako hariak entokatu gabe zeuden, baina hori abantaila



Severinorena lehengo txabolen erara atonduta. ● MIKEL SAIZ

izan zitekeen, zirrikituen artetik bisitak etortzen ikusten baitziren».

Xehetasunak gorabehera, Severinoren Txabola berriak artzainen bizimodua eta bizitokia nolako zen erakusten du. Hiru zatitan banaturik dago: batean, sutegia eta ohatzea dago; beste batean, gazta egiteko gela

eta, hirugarrenean, bisitak hartzekoa. Bertan Patxi Erdoziak eginiko grabazioak Urbasako abeltzainen bizitza nolako zen kontatzen du.

Naturaz gozatzeko ibilbideak

Egun berean, hiru ibilbide paisajistiko aurkeztu zituzten: Iturriena, Mendizaleena eta Artzainena. Lehenbiziko biak nork bere ka-

Mendizaleen ibilbidea

BIDE HONETAKO EZAUGARRI ERAKARGARRIENA IKUSPEGIA DA. Informazio Zentroan hasten da, bidezainen egoitza zabala. Olatz-egutia mendatean, eta gero haitzaren barrenean gora. Urbasa mendilerroaren iparralderantz, Gazbidean zehar, baginaz harretik. Ikazkinek lantegietan eginiko lanaren aztarnak ere ikusten ahal dira. Igoeraren bukaeran sekulako ikuspegi sakana, Aralar mendilerroa eta Aizkorri aldean.

Mendizaleen ibilbide osoa berdez dago markaturik. Bide hori izan dena ibiltariaren arreta erakarriko duten puntuak dira. Ibilbidearen hasieran, errepide nagusitik gertu, basoaren eremuan ingurunean ongi txertatua, sarioia dago, hau da, abereak beldur diren zelaia eta artzainaren borda. Artzainak txabola du bizimoduen erdian, eta haren aldemenan artegia, ardiak bildu eta, Orografia ere profitatzen zuten; adibidez, ibilbide ertzean, haitz handietako zuloak, «zotoloak», mendian bere gaitzak ziren txerriak gizentzeko txerriegiak ziren.

Apur bat aitzinago, Gazbidetik ezkerrean, ikaztegiaren az-tarnak daude, eta, alboan, ikazkinek aterpetzat zuten erredua. Ikazkinek lan egiten zuten tokiari «lantegia» erraten zioten.

Lantegia gibelean, arrasoan eta sako-nuneko zelaian barrena doan bidea bukatzean, Urbasako goreneko harkaitzeraino igotzen da bidea. Gurdibidean zehar, Zuzorkil eta Mandaberardia izeneko pagaditik gora joanen da ibiltaria, 1.113 metroa

Datuak

- Urbasa eta Andia naturgunearen zirkularrak 21.408 hektareak hartzen ditu. Zirkularrak: 4.700 ha. Andian, 11.349 ha. 190 ha. Limitaciones mendietan, Urederra ibaiaren iturburua dago.
- Iragan urlean, apur bat 5.537 bisita jaso zituen parkeak. 2008ko uste dute parkearen bisitazioa edo hagitza ona dela.
- Parkean Europako 120 espezie inguruko interesdunak diren animalia biltzen dira. Bertan 145 espezie daude: 9 anfibio, 8 narrasti, 34 ugaztun. Horien artean, amezpezieak: gailurretako uharteko igela, sai zuria, belatz handiaren saguzarra eta desman pirinera.
- Parkeko errealitateak azpiko uraren %27 biltzen duena, Ubagua eta Arteta iturburuetan da, eta bertatik Nafarroako 125 baino gehiagok edaten dute.



● MIKEL SAIZ

buz egiteko dira, eta Artzainena bisita gidatu gisa antolatutik dago, bi orduko ibilaldian ikusten den barietate geologikoa, landaretza eta animaliak ongi azaltzeko. Dena dela, beste biek aurkeztu bazuten ere, azken ibilbide hori ezin da oraino egin.

Informazio Zentroan astelehenean erran zutenez, bidea ez dago erabat zehazturik; bisitak gidatuko dituen pertsona aukeratzea falta da, eta bisitak nola antolatuko diren ere ez dute zehaztu. Bitartean, beste bi ibilbideak egin daitezke, lasai asko.

Markotegiren esanetan naturgune erabilera tradizionalak eta bisitarien sortzen dituztenak bateragarri egitea da



Mendizaleen ibilbidearen bukaeran, Artzanbaratza gailurrean, sekulako ikuspegia dago. Irudian, apur bat ekialderago dagoen gailurra ageri da: Hiruhaitza. ● MIKEL NAZABAL

iritzi arte, Artzanbaratza eta Balankaleku artean. Urbasako iparraldeko pagadi hori mendi osoko hezeenetakoa da. Pago artean sartu ahal, ikusgarriagoa eta ederragoa egiten da. Paleozenoko kareharrizko bloke handi batzuek —zortzi metro eta gehiagokoak— animalia izugarriak dirudite: pagadi sorgindua. Gailurretik gertu, pago zaharrenak daude, batzuek ihartuta, ondoz beterik eta zulatuak gehienak. Eta goian, sekulako ikuspegia: Sakana osoa, ekialdetik Beriango gailurren, iparraldetik Aralar mendilerroak eta ipar-mendebaldetik Aizkorri mendiak inguratuta.

Bidaldia: 4,5 km.
Desnibela: 45 m.
Iraupena: 20 min., guti gorabehera.
Zailtasuna: 1tik.
Beharrezko materiala: Oinetako eroso eta gogorak, prismatikoak eta argazki makina.

Iturrien ibilbidea

BIDEA ZIRKULARRA DA, INTERPRETATIO GUNEAN hasi eta bukatzen baita. Ibilbidean pagadiak zeharkatu eta lur karstikoan urak betetzen duen zikloa azaltzen da. Urbasan diren ur edangarriko zazpi iturrietatik igarotzen da bidea, horien artean, mendilerroko bisitatuena den Eltxoen iturritik. Iturri guzietako ura Urbasaren barreneatik dator. Gainera, bidea Historiaurreko zenbait aztarnategien ondorengotik igarotzen da. Aztarnategiok adierazten dute lur hauetan artzainek milaka urte daramatzatela beren azeitak bazkatzen.

Ibilbidea kolore urdinez dago markatua. Bidea soilgune edo arrasoan eta pago bakartien artean doa. Eltxoen iturritik pasatu eta gero, Ama Birjinaren pagora ailegatu da. Haren azpian babes-tu omen ziren Lizarrako bi mendizale, ekaitz beldurgarri batean. Tximista batek arbola jo zuen, baina Lizarrakoei ez zitzaion deus gertatu, eta, esker onez, Ama Birjinaren irudi bat paratu zuten zuhaitzaren zulo tiki batean. Apur bat haratago, Gortasoro iturria dago, kalarenita harrien malkarpean. Abeltzainek urteetan baliatu dute iturria, soilguntetik hurbil dagoelako; hori adierazten dute bertan agertu diren Historiaurreko lana-besek.

● MIKEL SAIZ

Bi ibilbideen mapak eta ezaugarriak biltzen dituen liburuxkoak argitaratu berri ditu Ingurumen Departamentuak, baita ikazkinek, gaztaren, abeltzainen eta txabolen inguruko liburuxko bana ere. Horiek guztiak Informazio Zentroan daude eskuragai, dohainik. Orotara, ibilbideak, seinalizazioak, liburuxkoak eta ikaztegia zein borda egiteko aurrekontua 30 milioi pezetakoa izan da (1.200.000 libera).

Erabilera eta kudeaketa plana

Nafarroako Gobernuaren asmoa da, Markotegik aitor-tua, naturgune erabilera tradizionalak —abeltzaintza eta basozaintza— eta bisitarien sortzen dituztenak bateragarri egitea. Horregatik, hilabeteetan, parkearen esparru guztien ordenamendua bilduko duen Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzailea eztabaidatu dute Gobernuak eta Parkeko Patronatuko kideek. Uztailearen hasieran Patronatuko gehienek planari oniritzia eman zion, hainbat zuzenketa egin ondoren, eta badirudi Nafarroako Gobernuak abuztuaren hondarrean onartuko duela.

Hasiera batean, Ingurumen Departamentuak debekatu nahi zuen abereak neguan ere parkean bazkatzen egotea. Baina, azkenean, atzera egin du, eta abeltzainak kontent dira. Ez, ordea, ehiztariak. Izan ere, planak ehiza debekatu du, ez bada ezpezie kaltegarriekin akabatzeko. Baina ehiztariak ez dira ados. «Urbasan ehiza egitea eskubide historikoa» dela uste baitute, eta «abeltzaintza bezain tradizionala». Hauek bezalako beste hainbat alderdi eztabaidagarri daude. Dena dela, Markotegik errana du planaren dokumentua malgua eta irekia dela, etorkizuneko aldatetarako egiteko.



Bidaldia: 4,5 km.
Desnibela: 45 m.
Iraupena: ordubete inguru.
Zailtasuna: 1tik.
Beharrezko materiala: oinetako erosoak eta gogorak, prismatikoak eta argazki makina.

Arafeko iturria iritsi aitzin, eskuinaldean, arrasoaren ondoan, ibarbaso trinkoa dago (elorriak, urritzak eta iratzeak), ospela eta hezea. Harkaitz puska handiek, goroldio eta likenek, eta pitzaduren artean sortu pago zaharrek irudi ederra osatzen dute. Eta handik hurbil, Arafeko iturria, nora arrasoetan bazkatzen diren aziendak ura edatera betidanik hurbildu baitiren.


Aitzinago, bidezidorrean bertan, lur geruza guztiak aztertzeak aukera dago: humus beltza gainean, beheago harea zurixka, eta sakonean hareharria. El Arenalgor iturrian ikusten ahal da nola iragazten den ura, gero berriz ere desagertzeko. Azkenik, Basantzi iturritik eta Kisuerretatik pasatu eta gero, ipurdiraino ailegatu da bidea. Bertatik parkeko hainbat toki ikusten ahal dira, baita kanpotik itxura ere.

Asier Azpilikueta

Metropoli forala

Epitafioa. Gaztetan ziur nintzen Young Play nire bizitzako laranjondoa izanen zela. Ziur nintzen egunen batean dantzatokian sartu eta, barraren ondoren eserita, niri begira, irribarretsu, nire laranja erdia topatuko nuela. Gaztetan laranja erdi perfektua, independentzia eta sozialismoa eskuragarriak zirela sinesteko bezain koitadua nintzen. Gaztetan, halaber, erdaldun hutsa nintzen, eta horregatik erabiltzen nituen laranja erdiarena bezalako metafora ez-euskaldunak. Gero euskara klaseak heldu ziren, autonomia estatutuak eta harresiaren erorketa, eta emaztea lantokian, Unzun ezagutu nuen, egun nire semealaben amona denarekin batera xurgailua –aspiradorea, alegia, hiztegiak dioenez– erostera etorri zelarik. Halere, Young Playren paretik pasatzen naizen aldi oro, gogora etortzen zait duela pare bat hamarkada –eskerrak, tangoaren arabera, hogeitaz urte ez diren deus– dantzatokian sartzean, nire bihotzeko azukre koskor ezezagunaren bila nire begiradak barra alderik alde miatzen zuen bitartean, erraietan sentitzen nuen zirrara.

Bestelako errotuluak. Nolanahi ere, zirrara urrunaren oroitzapena ez da Baiona etorbidean barna dantzatokiarekin topo egiten dudana bakoitzean garunera automatikoki datorkidan aburu bakarra. Horretaz gain, beti galdetzen diot neure buruari zer birigarrok kendu zizkion Young Playri nire gazte garai sinestekorrek lotzen ninduten Young Play zioten neoizko letra distiratsuak.



Reverendos dantzatokia, Youn Play zegoen tokian.



Felipe Rius, Metropoliforuzaina.

Zertarako, eta sekta batena dirudien izena jartzeko: Reverendos. Eraikin biribilari buelta emanaz gero, jarraian «de los testigos de la quincuagésima resurrección del santo prepucio» irakurtzerik izanen duzula ematen du. Halaber, beste errotulu bati erreparatzen diot beti, Young Playren parean dagoenari, Telefonicaren egoitzaren gainean eraikineko izkinan irakur daitekeenari, 'Detectives Asociados' dioenari.

Izendaezina. Hagitz gustuko dut **Felipe Riusek** gehigarri honetan idazten zuen zutabea izendatzeko asmatu 'Metropoli forala' esamoldea –Riusen asmakizuna da, bai. Euskalerrira Irratiko **Pello Argiñarenak** eta besteak kopiatu

besterik ez zuten egin–. Hagitz gustuko dut ironia izateaz haratago kasik sarkastikoa delako, agerian uzten duelako gure hiriarren eta hiritarren garunen txikitetasuna –aldi berean buruhandi asko badago ere–. Hori guztia dela kausa, arestian aipatu errotulua zentzu bitan egiten zait sinestezin. Batetik, ez zait iruditzen gurean ikertzaile bakar bat ere izan daitekeenik. Bestetik, are sinestezinagoa egiten zait gurean Ikertzaile Elkartuak izeneko enpresa existitzea, horrek esan nahi baitu ikertzaile bat baino gehiago dagoela. Gu-txienez, bi. Kartela Iruñeko Udalak hi-

riari nolabaiteko izaera kosmopolita emateko paraturikoa dela pentsatu izan dut, aurtun familiarekin batera abuztua pasatzera Zarautzera heldu naizen arte. Zarauzko pisura heldu bezain pronto, oporrak gurekin igarotzen ohi dituen emaztearen ahizpa kaskarin samarrak nobio berria aurkeztu zidan. Uztailaren 7an jaiotakoa da, Fermin deitzen da, eta ikertzailea da. To!



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Oro meteorologo

Igogailuan. Bilera baten aurretik. Tabernariarekin. Villavesan. Amaierarik ez duen hizketarako gaia. Atzoko bero izugarria. Gaurko haize ufadak. Biharko iragarrita dagoen euria. Langabezia, etxebizitzaren prezioa eta egoera politikoa baino gehiago, eguraldia izaten da sarritan iruindarron kezka nagusia.

Eguraldi gaitan aditu Mikel Belaskoren hitzetan, «beti kexu gara, bero egiten duenean bero egiten duelako, eta hotzarekin ere beste horrenbeste». Ona. Txarra. Nahasia. Eguraldia oso aldakorra da Nafarroako hiriburuan.

Hotza. Euria. Haizea. Beroa. Faktore horien artean egin daitezkeen konbinazio klase guztiak eskaintzen ditu gurean atmosferak. «Iruñea Kantauriko eta Mediterraneoko klimaren bidegurutzean dago, eta, horren ondorioz, egun batetik bestera alde handiak izaten dira». Sarri-

tan, negu gorria eduki beharko genukeen garaian epela izaten da giroa, udaberrian hotza nagusi, eta udan, zaparradak.

Etengabeko gorabehera horiei aurre egiteko, besotik, lepotik edo gerritik jertsea beti zintzilik. Badaezpada ere. Zenbaitetan, baita hondartzan ere. Belaskok urteetan jasotako datu ofizialen arabera, «Iruñeko batez besteko tenperatura 12,2 gradukoa da: neguan, 5,3koa; udaberrian, 11,2koa; udan, 19,4koa; eta udazkenean, 13,1koa».

Hirian sakabanaturik dauden termometroak, batik bat kale nagusietako errepideetan paratuta daudenak, ez omen dira oso fidagarriak. «Baten bat aukeratzekotan, La Vasco Navarrakoa eta Diario de Navarra-k Cordovi-



Eguraldia oso aldakorra da Iruñean.

llako egoitzan duena aipatuko nituzke».

Meteosat zeruan. Andoni Aizpuru ETBn. Pello Zabala Euskadi Irratian. Paco Montesdeoca eta Jose Antonio

batean esaten zen Iruñean hiru estazio besterik ez zirela: Renfeko, autobusetako eta negua. Itxura guztien arabera, egoera asko aldatu da 160 egunez euria egiten duen hiri honetan.

Aritz Ibañez

DUGUNA DANTZA TALDEKO ZUZENDARIA

● JOXE LACALLE

soslaia

Duguna dantza taldeko 45 bat kide egon dira Ingalaterran. Nahiz eta Aritz Ibañezek onartu hobeki dantzatzeko ahal zirela, Middlesbroughen bost lehen sari irabazi zituzten: nesken talde sailean, Neskaxena dantzarekin; 12 kide baino guttiagoko talde mistoen sailean, fandango eta arin-arinarekin; koreografiaren sailean, Batelera eta Katxarrankarekin; sari nagusia, Nafarroa Behereko inauteriarekin; eta musikari bakarlariaren saria, Aritzen txistuaren soinuekin.

Aritz Ibañez («Artiz Ibañez» Middlesbrougheko jaialdian) duela 22 urte sortu zen, Iruñean, eta Duguna taldeko dantzaria, txistularia eta zuzendaria da. Udal Ikastolan eta Biurdana institutuan ikasi eta gero, Nafarroako Unibertsitatean kazetaritza ikasi zuen. Iaz Euskalerra Irratian kiroletako arduraduna izan zen, eta, Martxelo Soteseekin batera, Iruñea Konexio saio sarkastikoa egiten zuen. Egun ETBko erredaktore lanetan dabil Iruñean.



«Gure folkloreak aise ematen du nazioarteko jaialdietarako»

ARITZ IBAÑEZ BITAN IZAN DA Middlesbrougheko jaialdian. Aurten, dantzari eta txistulari gisa ez ezik, Duguna taldeko zuzendari gisa joan da.

■ Nolako bidaia izan da?

Uztailaren 19an abiatu eta hirlaren azken egunean itzuli ginen. Middlesbrough herrian bost egunean egon ginen dantzatzeko, eta gero txangoa egin genuen Londresera. Dantza taldean urtero, edo bi urtetik behin, horrelako bidaiak egitea gustatzen zaigu. Dantzatzeko eta atseden hartzeko balio dute.

■ Middlesbrougheko jaialdian egoten zineten bosgarren aldia zen.

Bai. Lehenago Duguna taldea 1974an, 1976an, 1992an eta 1997an egon da jaialdian. Eta egon garen bakoitzean, nahiko emaitza onak erdietsi ditugu.

Duguna Dantza Taldea Ingalaterran izan zen duela pare bat aste. Middlesbrough herriko nazioarteko jaialdian parte hartu eta bost lehen sari irabazi zituzten. Londresera turista gisa joan eta Trafalgar plazan larrain-dantza dantzatzeko bukatu zuten.

1997an sari nagusia irabazi genuen, hamabost talderen artean. Horregatik ezin izan genuen parte hartu 1999ko jaialdian. Aurten, berriz ere, sari nagusia irabazi dugu, baina bost talde besterik ez geunden. Agian horregatik izan dugu arrakasta.

■ Zein herritako taldeak zeuden txapelketan?

Bulgaria, Eslovakia, Txekia, Polonia. Ekialdekoak guziak. Ez dut erranen folklore berdina dutenik, baina

bai oso antzekoa. Bestalde, Turkiako batzuk joatekoak ziren, baina egun batzuk lehena go hil zitzaizen zuzendaria. Eta Ukrainakoek ez zuten lortu bisarik.

■ Zer dela-eta hain partaide guti?

Horrelako jaialdia antolatzea zaila da, herri askotako taldeak ekarri behar direlako. Azken ur-

teetan arazoak izan dituzte txapelketa antolatzeko. 1966tik ari dira egiten, dantzariak etxeetan hartzen dituzte eta, akaso, nekaturik dago jendea.

■ Baina nola epaitzen ahal dira txapelketa batean herri bateko eta besteko dantzak?

Ni ez naiz epaile, eta pentsatzen dut nahiko zaila eginen zitzaiela. Dantza batzuek ez dute besteekin batera zerikusirik, eta dantza mailari baino nik uste dut kasu gehiago egiten diotela herri bakoitzaren folkloari. Hemen zorte handia dugu; Euskal Herria herri ttikia da, baina oso folklore aberatsa dugu, oso dantza ezberdinak baititugu. Txapelketan hamar bat dantza egin behar ziren. Zorionez, euskal folkloreak askoz ere dantza gehiago ditu, eta aise ematen du nazioarteko txapelketetan parte hartzeko. Beste herritako dantzariak sailetan antzeko dantzak egin zituzten, edo, besterik gabe, dantza errepikatzen zuten, orain neskak, gero muti-

lak, eta bukatzeko neska eta mutilak. Bulgariako taldeak, adibidez, bi dantza besterik ez zuen egin. Uste dut hori asko baloratu zutela, folkloreak aberastasuna. Gu saiatu ginen sail bakoitzean dantza arras ezberdinak egiten, errepertorio zabala eskaintzen, eta hortik etorri zitzaigun arrakasta. Musika ere aldatuz joan ginen, txistulariak, fanfarrea eta Tafallako gaitariak tartekatuz.



■ Txapelketa izan eta gero, Londresera egin zenuten txangoa, eta Trafalgar plazan larrain-dantza dantza-tu omen zenuten.

Halaxe da, bai. Txistulariok eta gaitariak erabaki genuen egun batean musika tresnekin kalera ateratzea. Eta taberna batetik pasatu eta gero, Londresko karraketan barrena abiatu ginen jo eta jo. Trafalgarren udaltzaina etorri zitzaigun erranez han ezin zela jo. Komentatu genuen guk ez genuela dirurik eskatzen, gustatzen zitzaigulako dantzatzeko gurea. Nagusiarekin hitz egin ondoren, hamar minutu eman zizkigun. Jendetza bildu zen gure inguruan, eta, gero, Trafalgarreko iturrian bainua hartu genuen. Eta, bitxia bada ere, udaltzainak orduan ez zuen deus ere erran.

→ Asier Azpilikueta



Ezkerrean, Duguna Middlesbroughen, eskubian Londresko Trafalgar Squaren ● DUGUNA DANTZA TALDEA



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Gazteleku enparantza

Iruñeko Udalak aspaldi «Gazteleku Enparantza» zioen kartel elebiduna paratu zuen Gaiarre antzokiaren parean. Kasualitateak kasualitate, euskarazkoan zegoen akatsa. Erdarazkoan zuzen-zuzen agertzen zen: «Plaza del Castillo». «Castiyo» honelaxe, «y» grekoz jartzen ahal zuten, elebitasunaren mesedetan, akatsak euskarazkoan soilik izan ez daitezten. Baina ez, akatsa beti euskarazkoan. Kontua da, ditxosozko akatsa bazterrean utzita, haiek egindako itzulpenak bestelako esanahia hartzen zuela, eta espresuki gazteendako zen esparri bat iragartzen zuela. Beraz, gaitzerdi; izan ere, gazte asko gerturatu dira plazara parkinaren aurka daudela erakustera. Baina alkatteak esan duenaren arabera, hor batzen garen gazte guztiak (ni oraindik ere gazte sentitzen naiz) kale borrokaren ingurukoak omen gara: gasolinaren mutikoak. Nik dakidanik, Gazteluko plazan koktelak eskaintzen dituzten baka-rrak terrazetako zerbitzariak baino ez dira.

Dena dela, zeinen ikusgarria den bertan batzen den parrokia. Sekula baino gehiago, plazak Iruñeko egongela ematen du. Iruñeko edadetu eta erretiratu guztiak. Eta ez soilik haien ohiko topagunea delako, oraingo honetan beren denbora-pasarik kutunena, herri lanen jarrailen zehatza hain zuzen ere, beren egunero esertokitik jarraitzen ahal dutelako. Badakizue, nonbait 65 urte betetakoan barruan daramagun ingeniaria azaleratzen zaigu.

Horietaz gain, parkinaren kontrako plataformakoak egoten dira inguratzen zaien orori azalpen guztiak gratis et amore ematen. Nahi gabean hitz-jokoa atera zait: azalpenak dira debalde ematen dituztenak, baina amore... amore ez dute ematen, hori ez.

Pentsa, lagunok, zelako fauna bildu den parkinaren kontrako sentimendu horretan, Pantxa Navarrete bera mobilizazioetan ikusi dute eta. Pantxa anderea eta bere koinata, txoritxo batzuek esan dutenez.

Txoritxoak aipatu eta Gazteluko plazari ukitu esotikoa ematen dioten pajaroekin akordatu naiz. Ez, ez naiz atzerriko bisitariak ari; tira, behintzat, bisitariak ez dira. Sekretez ari naiz, nahiz eta ozenki dabilzan sekretak diren.

Zeinek uka, ordea, Gazteluko plaza hiri honetako topagunerik nabarmenena dela?

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Soblind taldeak Medialuna tabernan joko du gaur, 22:30ean.
- **Elizondan:** Ardanpera fanfarrea eta Nekéz-ari abesbatza elkarrekin ariko dira bihar, 19:30ean, Merkatu plazan.
- **Oibar:** Burlatako Koma taldeak kontzertua eskainiko du bihar.
- **Agoitz:** Raul gazteiztarrak San Miguel ikastetxeko futbol zelaian kantatuko du asteartean, 23:00etan.
- **Leitza:** Skunk eta Segabathor taldeek asteartean joko dute, gaueko hamabietan, plazan.
- **Iruñea:** Iñaki Azkunze kantaria Zaldi Zuria ostatuan izanen da asteazkenean, 20:00etan.

BERTSOLARIK

- **Leitza:** Igor Elortza, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Andoni Egaña bertsolarien saioa izanen da asteartean, 19:00etan, plazan.

ZINEMA

- **Barañain:** *Auzoko animaliak* euskarazko marrazki bizidunetako euskarazko filma ematen dute gaur, 22:00etan, aintzirako anfiteatro naturalean.

ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Behi Bi's taldeak *Txakur beltz, handi eta iletsu bat* euskarazko antzezlana eskainiko du asteartean, 18:00etan, Martiket igerilekuan.
- **Aldatz:** Teatro Bajo la Arena taldeak *Miraria hirian* lana antzeztuko du asteartean, 22:00etan, frontoian.

KIROLAK

- **Doneztebe:** Herri kirolen proba konbinatua izanen da igandean, 12:30ean, plazan.
- **Valtierra3:** Asteartean, 6 kilometro

troko krosa jokatuko dute Erribera pasealekuan, 18:00etan. Izena ordubete lehenago eman behar da, Udaletxe plazako irteeran.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

- **Barañain:** IKAKo Sahats euskaltegiak EGA ikastaroa antolatu du abuztuaren 13tik irailaren 7ra. Lau eskola ordu egunero, astelehenetik ostiralera. Gaur da izena emateko azken eguna. Telefonoa: 948-188325.

ERAKUSKETAK

- **Jaurrieta:** Iñaki eta Mikel Maru-

gan anaien *Tiempos en Jaurrieta* argazki erakusketa eskolan izanen da ikusgai hilaren 15etik 19ra, egunero 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

► **Elizondo:** Ana Marin margolariaren *Nire txokotik oroitzapenak (1953-1997)* erakusketa Arizkunenea kultur etxean ikusten ahal da irailaren 2a arte, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

► **Izaba:** Peio Azketaren margolanak irailaren 2a arte izanen dira museo etnografikoan, asteartetik igandera, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

► **Erriberri:** Boregan artistaren *Sentimiento y materia* eskultura erakusketa errege jauregian izanen da irailaren 3a arte.

BESTELAKOAK

► **Erriberri:** Dastaketa ikastaroa eginen dute gaur, 20:00etan, Ardoaren Kofradian (Kale Nagusia, 4). Tokia hartzeko: 948-210347.

► **Zangoza:** Gaur eta heldu den ostiralean Erdi Aroko afariak eginen dituzte Karmengo klaustroan. Tokia hartzeko: 948-870251.

• JOXE LACALLE



Sorginarena

Gazteluko plaza, «Iruñearen bihotza» eta «iruindarron egongela», salbatuko duenik ez dago. Hau da, egunen batean, plaza itzuliko digute, baina jada ez da berdina izanen, nahiz eta aurreko itxura mantendu. Bizilagunak (aparkalekuaren kontrakoak, noski) egunero ari dira protesta ekitaldiak eginen lanen geldiarazteko. Umorea ez zaie falta; irudia lekuko. Besteak beste, iragan astean Altsasuko momotxorroak Iruñeraino hurbildu ziren bizilagunei hatsa emateko. Bizilagun batek sardea hartu eta sorginarena egin zuen gure argazkilari ausartaren aitzinean. Tamalez, mota guzietako laguntza beharko dute zenbait politikoren burugogorkeria gainditzeko. Araorik ba ote daki inork sorginak erakartzeko?